



## Kulturarteko Herritartasun Testa – Pribatutasun-oharra

### 1. Nor da datuen tratamenduaren arduraduna?

Europako Kontseiluak testean jasotzen diren datu pertsonalen tratamenduaren «datuen kontrola» egiten du. Beraz, erakunde hori da prozesu horretan eragina duten erabakiak hartzen dituen.

### 2. Zer datu tratatzen ditugu eta zertarako?

Testaren amaieran dauden “galdera demografikoei” emandako erantzunen bidez jasotzen ditugun datu pertsonalak tratatzen ditugu. Datu horiek beharrezkoak dira honako hauek aztertzeko: testa egiten duten pertsonak giza-eskubideei buruzko ezagutza-kategorietan nola banatzen diren, beren kulturarteko gaitasunak, aniztasuna abantailatzat duten ala ez, hala nola, kulturartekotasuna oinarri hartuta jarduteko prest dauden.

Horretarako, datu pertsonal hauek prozesatzen ditugu: hiria, herrialdea, adina, generoa eta, azkenik, migratzaile gisa identifikatzen diren.

### 3. Zer lege-oinarri du gure datu-tratamenduak?

Zure datu pertsonalak Europako Kontseiluaren tresna juridikoekin eta barne-araudiekin bat etorriz tratatzen ditugu, Europako Kontseiluaren eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren jarduerak egin ahal izateko.

### 4. Nork eskura ditzake zure datuak?

Testaren erantzunak aztertzeko datu pertsonalak behar dituzten Europako Kontseiluko unitate edo pertsonak bakarrik eskuratu ahal izango dituzte. Zure datu pertsonalak ez ditugu hirugarrenekin partekatuko.

### 5. Zenbat denboran gordeko dira zure datuak?

Testari emandako erantzun guztiak Kulturarteko Hirien programak irauten duen bitartean gordeko ditugu.

### 6. Datuak beste herrialde batzuetara transferitzen al dira?

Zure datuak Europar Batasunean gordeko ditugu eta ez dira Europar Batasunetik kanpoko herrialde bakar batera ere transferituko. Dena dela, testaren erantzunak biltzeko, SurveyMonkey erabiltzen dugu datu-prozesatzaile gisa. Testaren lehen orriaren amaieran, SurveyMonkeyren pribatutasun-politikara eramango zaituen esteka bat aurkituko duzu.

### 7. Zer eskubide dituzu zure datuak babesteko?

Zure datuak nola bildu eta nola erabiltzen diren jakin nahi baduzu, edo horren inguruan arazo edo eskaeraren bat baduzu, jarri harremanetan Europako Kontseiluarekin:

- [Kulturarteko Hirien \(ICC\) harreman-formularioaren](#) bidez mezu elektronikoa bat bidaliz edo
- Europako Kontseiluko Datuak Babesteko ordezkariari mezu elektronikoa bat bidaliz, helbide honetara: [dpo@coe.int](mailto:dpo@coe.int).